

**TXOSTENA, KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOARENA, AGENCIA VASCA DE REINSECCIÓN SOCIAL/GIZARATERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA SORTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA*****Tramitagune -DNCG\_LEY\_6767/21\_10***

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten baitu, III. tituluko IV. kapituluaren arautzen du Kontrol Ekonomiko Normatiboa. Kontrol hori nahitaezkoa da, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dagokion kontrol-txostena bidaltzean gauzatzen da.

Ekonomiaren eta antolaketaren alderdietatik, kontrol horren barnean sartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren organoak fiskalizatzea, bai organo horiek sortzeko eta ezabatzeke prozesuetan, bai, halaber, organo horiek aldatzeko eta berregituratzeko prozesuetan.

Txosten hau egin da, xedapen hauek kontuan hartuta: aipatu den araua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluaren 3. atala, eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuaren 4.a) artikulua.

**TXOSTEN****A****I. XEDEA.**

Txosten honen xedea da goiburuan ageri den epigrafekeko proiektuko kontrol ekonomiko normatiboa egitea. Proiektu horren helburua, bertan hitzez hitz jasotzen denez, Agencia Vasca de Reinsección Social/Gizarateratzearen Euskal Agentzia sortzea da.

2021eko maiatzaren 10ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoaren Osoko Bilkurak onarpena eman zion Estatu Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko erabakiari, espetxeen gainean Estatuaren legeria betearazteko. Erabaki horren arabera, Estatuak ezarritako legeen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio bere lurralde-eremuan dauden espetxeak ekonomikoki eta administratiboki kudeatu, zuzendu, gainbegiratu, antolatu eta ikuskatzeko egitekoak. Honako hauek, besteak beste: "...espetxe-

*eremuan honako prestazio hauek kudeatzea: hezkuntza, gizarte ekintza, espetxe-lana, lanerako prestakuntza, laneratzea eta gizarteratzea, kultura- eta kirol-ekintzak sustatzea, gobernuz kanpoko erakundeen esku hartze programen koordinazioa...”.*

Beste alde batetik, aurreproiektuaren zioen azalpenean azaltzen den bezala, gogoan eduki behar honako hau: *“Konstituzioaren 25.2 artikulua pertsonak berreztera eta gizarteratzera bideratzen ditu zigorrak, eta, aldi berean, askatasunaz gabetzeko zigorretara kondenatutakoei aitortzen die lan ordaindua izateko eskubidea, Gizarte Segurantzaren dagozkion onurak izatekoa, bai eta kultura eskuratzekoa eta beren nortasuna osorik garatzekoa ere”*. Horren ildotik, eta Espetxeen Lege Organiko Orokorrean eta hura garatzen duen erregelamenduan ezartzen denarekin eta beste arau batzuekin bat etorritik, Administrazioak baliabideak jarri behar ditu espetxean dauden pertsonak laneratzeko. Gainera, uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuak xedatzen duenaren arabera (espetxeetako lantegietan lan-jarduerak egiten dituzten presoan lan-harreman berezia eta gizartearentzako lanak egin behar dituztenen Gizarte Segurantzaren babesa arautzen ditu), espetxean dauden lan-harreman berezia dela-eta, kasu guztietan ezinbestekoa da enplegatzailea ez izatea espetxea bera, baizik eta *Trabajo y Prestaciones Penitenciarias* entea (Estatuaren zuzenbide publikoko erakundea, nortasun juridiko publiko berezia duena, bai eta bere ondarea eta diruzaintza ere, eta kudeatzeko autonomia eta jarduteko erabateko gaitasuna dituen, Barne Ministerioari atxikia Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren bidez) edo antzeko organo autonomikoa. Eskumenak eskualdatzeko erabakiaren 5. erabaki osagarrian, beste alde batetik, lan produktiboaren eta laneratzeko trebakuntzaren arloetako eskumenak hartzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko erakundea aipatzen da.

Horregatik guztiagatik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko legearen aurreproiektua aurkeztu du. Horren arabera, Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoa izango da eta beraren egitekoak izango dira espetxeetako produkzio-lana antolatzea; industria, merkataritza edo antzeko jarduerak egitea, espetxe-lanarekin zerikusia dutenean; Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan dauden pertsonen lanbide heziketa eta enplegurako orientazioa sustatzea.

Izapidetzen ari den aurreproiektua ez dago XII. Legealdiko (2020-2024) egutegiaren arabera Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak abiaraziko dituen “LEGE GINTZAKO PROIEKTUAK” multzoan (egutegi hori Gobernu Kontseiluaren 2020ko azaroaren 10eko erabaki baten bidez onartu zen). Ulertzekoa da, zeren eta enteen sorkuntza oraintsuko akordio baten ondoriozkoa baita: Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari espetxeen arloko egitekoak eta zerbitzuak eskualdatzeko akordioaren ondoriozkoa.

## **II. AZTERKETA.**

Bidalitako agiriak aztertu ondoren, uste dugu bat datozela, funtsean, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen ditu aipatu dekretuak), eta agiri horiek informazio nahikoa biltzen dutela bulego honek kontrol ekonomiko normatiboa egin dezan, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten du) 25., 26. eta 27. artikuluen arabera.

## **A) Prozedura eta izapidetzea**

Espedienteak jasotako dokumentuetatik ondorioztatzen da aurreproiektua egiteko prozeduran Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak eskatutako betekizunak bete direla, gaur arte. Hala ere, bi iruzkin.

Alde batetik, zuzenbide positibo aplikagarriak ez dakarrenean ere, kongruentzia-parametro gisa kontuan hartu behar da honako hau: Gobernu Kontseiluak (organo horren mende egongo da hemen aztergai dugun aurreproiektua ere) 2020ko abenduaren 29ko bilkuran onetsitako Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektuak 44.1 artikuluan dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraz besteko erakundeak eratzea helburu duten xedapenen kasuan, batera izapidetu beharko dute Administrazio Orokorrean ogasun-gaien eskumenak dituen sailak eta erakundearentzat aurreikusten den Administrazio Orokorreko atxikipen-sailak.

Bestalde, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiak, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onesten dituenak, adierazten du, besteak beste, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikuluan aurreikusten den memoria laburrak berariaz adierazi behar dituela arau-proiektuak administraziozama edo -kargen alorrean izango dituen inpaktu edo eraginak, emango den arauak ez dezan behar ez den kargarik erantsi. Horren ildotik, bulego honek eskumeneko duen kontrol-izapideari heldu dionean, espedientean ez da agertzen besterik honako adierazpen hau baino: entearen sorrerak ez die zuzenean eragiten herritarrei eta espetxean egon diren pertsonak komunitatean gizarteratzeak ondorio positiboa du ekonomian, berriz ere deliturik ez egitea bultzatzen baitu eta delituen ondoriozko kostuak (sozialak eta ekonomikoak) murrizten baititu.

Gainera, bulego honi helarazitako espedienteko dokumentazioan ez zegoen Aurrekontu Zuzendaritzaren txostenik, nahiz eta aurreikusita egon 14.1 d) artikuluan, otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuan, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoan. Horregatik, bulego honek txostena eskatu dio zuzendaritza horri eta hark 2021eko uztailaren 6an egin du. Aldekoa da.

Gogorarazi behar da ezen, espedientea Gobernu Kontseilura aztertu eta erabakitzeko igorri aurretik, espedienteari *prozedura osoaren memoria labur bat erantsi beharko zaiola, eta, bertan, honako hauek guztiak zehaztuko dira: aurrekariak, egindako izapideak, izapideen emaitzak eta, egindako txostenen ohar eta iradokizunei egokitzearen, batez ere txostenetan egindakoei, proiektuaren testuan sartutako aldaketak. Behar besteko zehaztasunez arrazoituko da zergatik ez diren onartu txosten horietan egindako oharrak, eta zehatz-mehatz arrazoituko da, orobat, azkenean erabakitako testua zergatik den antolamendu juridikoaren araberrakoa – 10.2 artikulua, 8/2003 Legea, abenduaren 22koa—.*

## **B) Testua eta edukia**

Ohar batzuk egin behar ditugu aurkeztutako testuari buruz:

### **1.- Eskumenak.**

Lehenago adierazi bezala, Gizarteratzearen Euskal Agentziaren sorreraren sorburua Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.14 artikulua da, EAEri eskumen eskusiboa ematen baitio espetxe erakundeek eta zentroek antolamenduaren, araubidearen eta jardunaren gainean, espetxeen arloko legeria orokorrarekin bat etorritik. Gainera, Estatutuaren 12. artikuluan ezartzen da EAEren egitekoa dela Estatuko espetxeen arloko legeria betearaztea. Geroago, 2021eko maiatzaren 11n, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak Estatuko espetxeen arloko legeria betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko erabakia hartu du. Egiteko horietako batzuk agentzia berriak edukiko ditu.

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak honako ezartzen du 20.4 artikuluan: *"bakarreko eskumena izan gabeko gaietan Estatutu honek Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen dizkion betearazte-egitekoek administratzeko ahalmena hartzen dute eta baita, hala dagokionean, zerbitzuak antolatzeke barne-araudiak ematekoa ere"*. Horregatik guztiagatik, EAEk badu eskumena txosten hau eragin duen lege-aurreproiektua egiteko, hau da, espetxeen lanaren arloko eta espetxeetan edo erdi-askatasunean dauden pertsonen lanbide-heziketaren eta lan-orientazioaren arloko egitekoak edukiko dituen entea sortzeko legearen aurreproiektua.

Txostena egin den egunean oraindik ez dira egon argitaratuta ez errege-dekretua, ez erabakia onartzen duen dekretu autonomikoa, baina, hala ere, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak espedienteari erantsitako justifikazio-memorian ongi arrazoituta azaldu du ezinbestekoa dela ahalik azkarren hastea entea sortzeko legearen izapideak egiten, berehala eman behar baitaio jarraitasuna *Trabajo Penitenciario y Formación para el empleo* estatu-erakundeak (TFPE) egin ohi zuen enplegatzaile-lanari, 2022ko urtarilaren 1erako beranduenik

ere (estatutuak onartu, kudeaketa-organoak izendatu, behar diren aurrekontu-eragiketak egin, erakundearen aurrekontuak onartu eta ondasunak eta baliabide materialak eta giza baliabideak esleitu ondoren).

## **2.- Legearen aurreproiektuaren testua**

Legearen testua oso laburra da. Horregatik, ohar gutxi egin daitezke aurreproiektuaren testuaz. Hala ere, badaude garrantzi txikiko kontu batzuk, gure ustez aipatzea merezi dutenak.

Geroago erakundearen sorrerak antolamenduan izango duen eraginari buruz adieraziko ditugun gogoetak gorabehera, lege-aurreproiektuaren testuaz honako hau esan behar da: nahiz eta ente berriaren egiteko guztiak lotuta egon espetxeko lanarekin eta espetxeetan edo erdi-askatasunean dauden pertsonen lanbide-heziketarekin eta lan-orientazioarekin, ez legearen izenburuan, ez entearen izenean ez da aipatzen gizarteratzeak xede dituela espetxean edo espetxetik pasatu ondoren erdi-askatasunean dauden pertsonak. Uste dugu hobe litzatekeela entearen izenean aipatuko balitz beraren jardun-esparrua pertsona horien gizarte-inklusioa edo birgizarteratzea dela.

Beste alde batetik, artikuluko bakarrean eta izenburuan Gizarteratzearen Euskal Agentziak "Aukerak" izena ere baduela aipatzen denez gero, horrekin bat etorritik, uste dugu hobe litzatekeela izen hori legearen izenburuan ere agertuko balitz.

Azkenik, artikuluko bakarraren 7. puntuan 14/1994 Legea aipatzen da, ekainaren 30ekoa, Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa; aipamen hori zuzendu, eta, haren ordez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea aipatu behar da (horren testu bategina urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartu zuen; aldi berean 14/1994 Legea indargabetu zuen).

### **C) EAEko Administrazio Publikoaren egituraren izango duen antolaketa-eragina.**

Legearen aurreproiektuaren helburu bakarra zuzenbide pribatuko ente publikoa sortzea denez, argi dago eragina izango duela antolaketan.

#### **1).- Izaera eta antolaketa-eragina**

Proiektuaren asmoa da AUKERAK- Agencia Vasca de Reinserción Social/Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzea, zuzenbide pribatuko ente publikoa (ZPEP), nortasun juridiko propioa duena eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasuna duena, espetxeen gaineko legeria betearazteko eskumena daukan Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia. Horrek EAEko administrazio instituzionalaren esparrua

zabalduko du, erakunde bat gehituko baitzaio, EAEko Administrazio Orokorraren bolumena gutxitu gabe, berregituratzerik ez dakarren neurrian; izan ere, Administrazio Orokorrak ez du eskumen hori egikaritu, adskribatu berria baita.

## 2).- Justifikazioa

Proiektuaren arabera sortuko den Agentzia ZPEP izango da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina (EONALTB) onesten duen 1/1997 Legegintzako Dekretuan (15 - 18 artikulua) azaltzen direnak bezalakoa, hau da: Euskal Autonomia Erkidegoko ente instituzionala da, izaera publikokoa, xedetzat duena deszentralizazio-araubidean gauzatzea erkidegoaren eskumeneko jarduerak, batez ere zuzenbide pribatuari jarraitzen diona.

Zuzenbide pribatuko ente publikoaren forma juridikoa edukiko duen erakundea (ente publikoa, batez ere zuzenbide pribatuari jarraitzen diona eta helburutzat duena haren eskumeneko jarduerak egitea deszentralizazioaren bidez) sortzeko legea onartzeko ekimena sustatu duen sailak egindako justifikazio-memorian honako arrazoi hauek ematen dira:

*"Legez eskatzen da espetxeetako lan produktiboa Administrazioak berak eskaintzea, baina, aldi berean, enplegu-emailearen posizioa Administrazioetik bereizitako nortasuna duen erakunde batek hartzea, lan-harremana dagoela ulertuko bada, eta horrek nahitaez dakar erakunde publiko bat sortu beharra.*

*Gure kasuan, erakunde autonomo bat, zuzenbide pribatuko ente publiko bat, fundazio publiko bat edo sozietate publiko bat izan daiteke.*

*Erakunde kudeatzailearen forma juridikoa gorabehera, inportanteena da espetxe-erakundearen helburuak bateratzea tailer produktiboak mantentzeko behar den enpresa-eraginkortasunarekin.*

### 2.5.- Barneratuen lan-jarduera kudeatzeko formula posibleen azterketa.

*AUKERAK Gizarteratzearen Euskal Agentzia ente publiko bereizi gisa sortzeko arrazoia da: eskualdaketa hartutakoan, jarraitutasuna ematea EAEko espetxeetan dauden programa eta tailerrei, eta barneratuek tailer horietan egiten zuten lan-jarduerari eustea; izan ere, indarreko lan-araudiaren aginduz, beharrezkoa da nortasun bereizi hori lan-harreman berezi bat aitortu ahal izateko, espetxeko laguntza-zerbitzuetarako prestazio pertsonal hutsez bestelakoa.*

*Erakunde hori behar bezalako aurrerapenarekin sortu eta abiarazi behar da, Autonomia Erkidegoak benetan bereganatu orduko Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo estatu-erakundea garatzen ari den funtzioen kudeaketa; izan ere,*

*langile barneratuen lan-harremanen jarraitutasuna bermatu behar da, haien lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak murriztu gabe.*

*Hori dela eta, Transferentzien Batzorde Mistoak eskualdaketa-akordioaren 5. akordio osagarria adostu zuen. Bertan, berariaz aurreikusten da Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo estatu-erakundearen antzeko ente bat sortu eta arautu dadila.*

*Are gehiago, halako nortasun juridiko bereizirik ez dagoelako sortu da akordio osagarri hori, espetxeetako erakundeen eskualdaketa-eraginkortasun-datak atzeratu baititu (orokorrean, 2021eko urriaren 1erako aurreikusita zegoena 2022ko urtarrilaren 1era atzeratzen du), espetxeko lana kudeatzeko. Hartara, estatu-erakundeak jarraituko du kudeaketa horiek egiten, aldi horretan zehar, Eusko Jaurlaritzak erakunde propio eta bereizi baliokide bat sortu eta abiaraz dezan. Erakunde hori gai izan beharko da 2022ko urtarrilaren 1ean estatu-erakundearen posizioa bere gain hartzeko, estatu-erakunde horrek kudeatzen dituen espetxeetako tailer produktibo guztietan besteren konturako lan-jarduera produktiboak garatzen dituzten presoan lan-harreman berezian.*

*Beraz, bazegoen nortasun juridiko propio eta bereizia duen erakunde bat sortzeko premia larria, jarraitutasuna eman behar zitzaion-eta gutxienez 354 barneraturen lan-harremanari eta gizarte-segurantzarako kotizazioari; horretaz harago, erakundearen sorrerak aukera ematen du bitarteko instrumental malgu eta moldagarria edukitzeko, espetxe-administrazioako organo eskudunek presoak birgizarteratzea lortu dezaten, lanaren eta prestakuntzaren bidez.*

*Zuzenbide pribatuaren mende dagoen zuzenbide publikoko erakunde gisa duen konfigurazioaren ondorioz, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak) 7.3.b) eta 15. artikuluetan eta hurrengoetan ezartzen duenaren arabera, EAEn eskumeneko jarduerak deszentralizazio-araubidean egitea du xede, batez ere zuzenbide pribatua betez.*

*Erakundeak garatu beharreko jarduerak barne hartzen dute lantegi produktiboak sortzea eta kudeatzea, barneratuei enplegua ematen dietenak, eta horren barruan sartzen dira ekoizpen- eta industria-jarduerak, merkataritzakoak eta egindako produktu edo zerbitzuak merkaturatzekoak. Jarduera horiek, nahitaez, zuzenbide pribatuaren arabera garatuko dira, hargatik eragotzi gabe Zuzenbide Publikoaren arabera jardutea ahal publikoak egikaritzean.*

*Hori dela eta, bere izaera hobeto egokitzen zaio zuzenbide pribatuko ente publikoen figurari, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 15. artikuluan eta hurrengoetan arautzen baita.*

*Erakundea baliabide instrumental malgu eta moldakor gisa eratu behar da, eta, esku hartzeko eredu integral baten bidez, askatasunaz gabetuta dauden pertsonen bigarren aukerak erraztera bideratuta dago, prestakuntzaren eta laneratzearen bidez.*

*Horrek segurtasun juridikoa emango du Gizarte Segurantzako araubideak langileei ematen dizkien prestazioen gainean, haien ordainsariak hobetuko ditu, eta, neurri handi batean, espetxeko lan-baldintzak kanpoko munduko lan-baldintzekin parekatuko ditu.”*

Bulego honek lehen ere eman du inoiz bere iritzia Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko jarduerak deszentralizazio-araubidean egiteko erakundeak sortu direnean. Bada, oraingo honetan ere uste dugu emaitza kalifikatzen duen formulazio baten aurrean gaudela: erakunde batek egiten baditu pertsona juridiko-publikoen berezko jarduerak (kasu honetan, administrazio orokorraren berezko jarduerak) eta bere egitekoetan, helburuetan, misioan eta planteamenduan “batez ere” zuzenbide pribatua aplikatzen bazaio, ZPEP bat dugu; aldiz, batez ere zuzenbide publikoa aplikatzen bazaio, erakunde autonomoa da, aurrean aipatu den ogasunari buruzko araudiak ezartzen duen bezala. Ogasunaren arloko legearen helburua ez da, beraz, aurrez ezarritako mota juridiko desberdinen katalogo batetik pertsonifikazio zehatz bat aukeratzeko ahalmena arautzea, ente instituzional berria era batera edo bestera sailkatzeko, ezta erakunde jakin baten zereginei zuzenbide publikoa edo pribatua esleitzeko ahalmena erregulatzea ere (hori lehendik ezarrita dago dagokion gaia arautzen duen araudi substantiboan –batzuetan, legegile autonomikoak ez du horretarako erabakimenik, esaterako kontratazio publikoaren arloan, dena delako erakundeak aplikatu egin behar baitu), eta, ondorioz, nortasun juridiko bat edo bestea ematea, nahi bezala. Alderantziz da: erakundearen egungo zereginetan zuzenbide publikoa nagusi bada (edo berehala egingo direnetan; ez etorkizunekoetan, legeak kalifikazioa alda baitezake hori esleitzeko baldintzak aldatzen direnean), zehaztapen baten aurrean egongo gara, eta, bestela, beste baten aurrean. Argiago esanda, kontua da aztertzea ea ZPEP baten aurrean edo erakunde autonomo baten aurrean gauden, bere zereginei aplikatutako zuzenbidearen arabera, zereginok funtzionalak edo prestazionalak izan.

Beraz, puntu hau erabakigarria da, izan ere, erreferentziazko araudirik ez dugula eta, ezin izan dugu AUKERAK entearen kalifikazio instituzionala erraztuko lukeen beste kalifikazio-irizpiderik erabili; izan ere, oraingoz EAEko Administrazioak ez dauka, ogasunari buruzko arautik haratago (noski, arau horrek dagozkion gaiak besterik ez ditu erregulatzen, alegia, EAEko ogasun orokorrari dagozkionak), ente horren egitura-instituzionalizazioa erregulatuko duen arau instituzionalik edo antolamenduari dagokionik, estatuko zuzenbidean edo beste autonomia erkidego batzuetan ez bezala. Hala ere, aurrerago iruzkinduko dugunez, Euskal Sektore Publikoaren Lege-proiektuan jasotako irizpideak erreferentziazkoak har daitezke,



Zuzenbide Positiboak ezarritakoaz gain. Alabaina, hori horrela, aipatutako emaitza-irizpidearekin batera oro har onartutako administrazio-logikako irizpideak (gaur egun orokorrean onartuta daudenak) aplikatu behar izanez gero, seguruena hauek izango lirateke alderdi erabakigarrienak: prestazioek eta zerbitzuek kontraprestazioa edo prezioa edukitzea; merkatuan esku hartzea, ondasun- eta zerbitzu-ekoizle gisa, sektore pribatura irekitako sektore ekonomikoetan; eta garrantzi gutxiagoko beste batzuk.

Bulego honen ustez, proiektuaren arabera enteak edukiko duen xedearen esparrua (espetxeetan dauden pertsonen gizarteratzen eta laneratzen laguntzea) eta edukiko dituen egitekoak (asko pribatuak dira: industria-jarduerak edo merkataritza-jarduerak) nahiko ondo uztartu ahal dira haren jardunari batez ere zuzenbide pribatua aplikatzearekin [hori ezinbestekoa da erakunde publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoa izateko, EONALTBen 15. artikularen arabera]. Horregatik, gure iritziz, Aukerak entea sortzeko zuzenbide pribatuko ente publikoaren forma aukeratu izana egokia da eta bat dator Administrazio Instituzionaleko enteen buruzko indarreko araudiarekin.

Gainera, gogoan eduki behar da Gobernu Kontseiluak Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektua onartu berri duela (aztergai dugun aurreproiektua ere Gobernu Kontseiluak onartu behar du; hortaz, kongruentziagatik behintzat, aurreproiektu honetarako inspirazio modura hartu behar litzateke). Bada, onartutako lege-proiektuak honako hau ezartzen du 6. artikuluan: euskal sektore publikoa sortzeari eta eraldatzeari aplikatu dakizkiokeen printzipiotzat hartzen ditu Administrazioaren nortasun juridikoaren batasunaren lehentasuna eta subsidiariotasuna; erakunde berriak sortzea aurreikusten du lehendik dauden baliabideekin interes orokorra ezin denean efikaziaz eta efizientziaz bete; eta, gainera, lehendik dauden baliabideak berrantolatzea eskatzen du<sup>1</sup>. Horren ildotik, espedientean badaude adierazpen batzuk, ente berria zuzenbide pribatuko ente

<sup>1</sup> 1.-Euskal sektore publikoko subjektuek printzipio espezifiko hauek bete beharko dituzte:

a) **Administrazioaren nortasun juridikoaren batasunari lehentasuna** emateko printzipioa. Horren arabera, kasu honetan baino ez dira sortuko nortasun juridiko propioa duten erakundeak: Administrazio Orokorreko organo eta administrazio-zerbitzuen bidez ezin denean lortu bete beharreko interes orokorra edo eman beharreko zerbitzua.

b) **Subsidiariotasun-printzipioa**. Horren arabera, kasu hauetan eratu daitezke zuzenbide pribatuko erakundeak: ekimen pribatuak ez duenean behar bezala bermatzen zerbitzu edo prestazio jakin batera iristeko bidea, edo erakunde horiek sortzea justifikatzen duten ordena publikoko arrazoiak daudenean.

2.-Euskal administrazio publikoak eta euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeek kasu honetan bakarrik eratuko dituzte beste erakunde batzuk edo parte hartuko dute lehendik dauden beste erakunde batzuetan: **interes orokorra ezin denean efikaziaz eta efizientziaz bete** dagokion sektore publikoak une horretan dituen giza-baliabideekin, baliabide materialekin eta antolamendu-baliabideekin.

3.- Administrazioko organoek edo sektore publikoko erakundeek betetzen dituzten zereginak aurrerantzean beteko dituzten erakundeak sortzeko, derrigor **berrantolatu beharko dira bitartekoak** eta, horretarako, zegozkien eskumen edo funtzioetarako erabiltzen ziren baliabideak murriztu, ezabatu edo transferitu beharko dira.

4.- Erakunde sortu berriek, bestalde, jarduteko edo funtzionatzeko behar duten formarik egokiena hartuko dute, lege honetan erakunde bakoitzarentzat arautzen diren printzipioen arabera.

publiko moduan sortzea justifikatzen dutenak, eta gure ustez aski dira eta bat datoz aurrean aipatutako xedapenarekin.

Bestalde, EONALTBn EAEko administrazio instituzionalari buruz jasotako araudiak ez du aurreikusten eduki zehatzik sortze-legearentzat (ZPEPak hala direla berariaz adierazi beharko dela baino ez du esaten); alabaina, eduki hori eratzeko balio dezake, kontuan hartu beharreko kongruentzia-parametro gisa, Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektuak, zeinak 44. artikuluan eta hurrengoetan zehazten baitu Administrazio Orokorraz bestelako erakundeak sortzeko prozedura<sup>2</sup>:

## <sup>2</sup> 44. artikulua.- Erakundeak eratzeko prozedura orokorra.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ez, beste erakunde batzuk eratzeko, Eusko Legebiltzarraren lege bat edo Eusko Jaurlaritzaren dekretu bat onartu beharko da, hurrengo artikuluetan erakunde-mota bakoitzerako ezartzen denaren arabera. Lege edo dekretu hori, bestalde, **batera izapidetu** beharko dute, kasu bakoitzean, Administrazio Orokorrean **ogasun**-gaien eskumenak dituen sailak eta erakundearentzat aurreikusten den Administrazio Orokorreko atxikipen-sailak.

2.- Lege-proiektua edo dekretu-proiektua **izapidetzeko prozeduran**, nahitaez **egiaztatu** beharko dira honako hauek:

a) Erakunde bat eratu **behar** dela lortu nahi diren helburu publikoak lortzeko.

b) **Nola egokitzen den** erakunde berri hori Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren antolamendu instituzionalaren perspektibatik. Bermatu beharko da ez dagoela edo ez dela errepikatzen inongo organorik, eta, hala badagokio, zer neurri hartzen den lehendik dauden erakundeak berregituratu edo desegiteko

c) Lege honetan pertsonifikazio juridikoetarako ezartzen den tipologiatik erakunde berrirako aukeratzen den forma **egokia** dela erakunde berriak bete behar dituen funtzioetarako edo jarduerarako, eta bat datorrela lege honek forma horri ezartzen dizkion printzipioekin.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra zer prozedura eta teknika erabiliko dituen erakunde berria **kontrolatzeko**.

e) Erakunde berriaren **ekonomia- eta finantza-bideragarritasun**.

3.- Artikulu honetan aipatzen diren erakundeak eratu eta osatzeko, hasierako **jarduera-plan** bat eduki behar da lehenik eta behin, eta gutxienez alderdi hauek bildu behar ditu plan horrek:

a) Erakundearen xede edo **helburuaren** adierazpen zehatza: organismo publiko berri bat eratzea justifikatzeko arrazoiak zehaztu behar dira eta organismo horrek izango dituen **helburuak** adierazi. Bestalde, helburu horiek nahikoak eta egokiak direla justifikatu behar da, bai eta helburuak neurtzeko **adierazleak** eta haiek lortzeko egingo den **urte anitzeko programazio** estrategikoa ere. Horretarako erabiliko diren **bitarteko ekonomikoak eta langileak** ere adierazi beharko dira, eta, langileei dagokienez, zehaztu egin beharko da lanpostuak nola beteko diren, langileak nondik ekarriko diren, kostuak zenbatekoak diren, zein diren ordainsariak eta kalte-ordainak, eta organismoaren jardura zer denbora-esparrutan garatzea aurreikusten den. Era berean, betetze-mailari lotutako ondorioak ere adierazi beharko dira

b) Memoria bat, egiaztatzen duena **komenigarria eta egokia** dela organoa sortzea, haren zereginak bete ditzakeen beste organorik ez dagoelako. Memoria horretan, gainera, egiaztatu behar da organo berria sortuta ez dela bikoiztasunik gertatzen lehendik dagoen beste edozein organo edo erakundek egiten duen jarduerarekin.

c) Erakundearen **antolamenduarentzat proposatzen den forma juridikoa**, eta antolamendurako baztertu diren aukerako beste forma juridikoak baloratzeko analisia; bai eta proposatutako forma juridikoak Autonomia Erkidegoaren antolamenduan duen eraginaren analisia ere.

d) Aukeratutako **antolamendu-egituraren** oinarriak: gobernu- edo zuzendaritza-organismoak nahiz organismoaren funtzionamendurako aurreikusten diren beharrezko giza baliabideak zehaztu behar dira.

e) **Plan estrategikoa**: hor zehaztuko dira helburu zehatzak eta jardura-ildoak.

f) Funtzionatzeko beharko diren **giza baliabideen** aurreikuspena, funtzio publikoaren arloko eskumena duen saileko titularraren txosten loteslearekin.

g) Funtzionatzeko beharko diren **informazio-teknologiaren** arloko baliabideen aurreikuspenak.

Ildo honetatik, entea sortzeko proposamenaren aurretik ez da osorik egin —bai zati batean— hasierako jarduera-planik, Euskal Sektore Publikoari buruzko lege-proiektuaren 44. artikuluko 3. apartatuak egitea eskatzen badu ere. Honako alderdi hauek jaso behar ditu hasierako jarduera-planak: manu berean zehazten den aurretiazko azterketa sakona eta zehatza; ekonomia- eta finantza-azterketa (ogasunaren eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailburuaren nahitaezko irizpena izan behar du, eta Gobernu Kontseiluak onetsi behar du), eta lehenengo ekitaldiko aurrekontua. Dagokion lege-proiektua onesten duen erabakiarekin batera hartu behar litzateke erabaki hori. Gure ustez, EAEko Administrazio Orokorren jarduketarekin bat etortzeko, eta seguruenik Eusko Legebiltzarrak Euskal Sektore Publikoari buruzko Legea aurki onetsiko duenez, aipatu ditugun hutsuneak aurreproiektua Gobernu Kontseiluari aurkeztu baino lehen zuzendu behar lirateke.

### 3).- Edukia

EONALTBn EAEko administrazio instituzionalari buruz jasotako araudiak ez du aurreikusten eduki zehatzik erakundea sortzeko legearentzat (ZPEPak hala direla berariaz adierazi beharko dela baino ez du esaten); alabaina, eduki hori eratzeko baliagarria izan daiteke Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektua, kontuan hartu beharreko kongruentzia-parametro gisa, honako hau ezartzen baitu 45. artikuluan:

*"1.- Legez eratuko dira organismo autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.*

*2.- Erakundeak eratzeko prozedura orokorrak ezarritakoa bete ondoren, gutxieneko eduki hau bildu beharko du dagokion erakundea eratzeko lege-proiektuak:*

*a) Zelan pertsonifikatzen den erakundea, zein izaera juridiko duen, eta Administrazio Orokorreko zein saili atxikitzen zaion.*

**h) Ekonomia- eta finantza-azterketa**, justifikatzen duena aurreikusi den hasierako zuzkidura nahikoa dela jarduerari ekiteko eta, halaber, justifikatzen duena nahikoa dela zuzkidura hori jarduerak gutxienez eta oro har bost urtez jarraitzea bermatzeko etorkizuneko konpromisoei aurre egiteko. Azterketak, gainera, berariazko erreferentzia egin beharko die gastu eta inbertsioen iturriei eta zuzkidurak Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan izango duen eraginari.

**4.-** Aurreko idatzi-zatietan aipatutako hasierako jarduera-planak eta ekonomia eta finantza-azterketak beharrezko izango dute **ogasun- eta aurrekontu-gaietako** eskumena duen saileko titularraren **nahitaezko txostena**. Saileko titularrak, bestalde, txosten osagarriak eskatu ahal izango ditu.

**5.- Gobernu Kontseiluari** dagokio hasierako **jarduera-plana**, erakundearen ekonomia- eta finantza-azterketa eta lehenengo ekitaldirako aurrekontua **onartzeko** erabakia hartzea, erakundea atxikiko den saileko titularraren proposamena jaso ondoren. Aldi berean hartu behar dira erabaki hori eta organismo publikoa eratzeko arauaren proiektua onartzeko edo gainerako erakundeen eraketa baimentzeko erabakia.

**6.-** Jarduera-plana eta urteko planak, bai eta haien aldaketak ere, publiko egingo dira, dagokion organismo publikoaren web orrian.

- b) Zein den erakundearen izena eta egoitza.*
- c) Zer helburu edo interes orokorrerako sortzen den, eta zer eginkizun gomendio utzi zaizkion; beren-beregi adierazi beharko da zer administrazio-ahal bete ditzakeen.*
- d) Zer gobernu-organo dituen, eta zeintzuei uzten zaizkien kontsulta-funtzioak, halako funtziorik gomendio uzten bazaie; organoak kide bakarrekoak ala anitzekoak diren; nola eratuta dauden; zer prozeduraren bidez izendatzen diren kideak, eta nola banatzen diren funtzioak kideen artean.*
- e) Zertan oinarritzen den erakundearen egitura organiko eta administratiboa, eta zeintzuk diren zuzendaritzako postuak. Zehaztu egin beharko da zer eginkizun gomendio uzten zaien postu horiei, eta zein balio juridiko daukaten haien egintza eta ebazpenek; era berean, adierazi beharko da egintza eta ebazpen horietatik zeintzuek agortzen duten administrazio-bidea.*
- f) Zer araubide juridiko zehatz aplikatu behar zaion ekonomia eta finantzen araubidearekin eta giza baliabideekin lotutako gaietan.*
- g) Zer langile eta ondare atxikitzen zaion erakundeari, eta zer baliabide ekonomiko dituen funtzioak betetzeko.*
- h) Zein den erakundea azkentzeko eta likidatzeko prozedura.”*

Aldiz, zerrendako elementuetako batzuk ez daude; hain zuzen ere: (1) ez da ezer ezartzen entearen egoitzaz, (2) ez da ezer ezartzen gobernu-organoez (osaera, kideak izendatzeko prozedura eta kide bakoitzaren egitekoak.– hurrengo erregelamendu baterako uzten dira-, 3) ez dira aipatzen entearen egitura organiko eta administratiboaren oinarriak, ez entearen zuzendaritza-karguak, ez beren egitekoak, ez beren egintzen eta ebazpenen balio juridikoa, ez horietako zeintzuek agortuko duten administrazio-bidea, 4) ez da ezer ezartzen erakundeari atxikitako langileez eta ondareaz, (5) ez da arautzen erakundea azkentzeko eta likidatzeko prozedura. Horiek guztiak zuzendu beharko lirateke. Gainera, kontuan eduki beharko litzateke Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostenean esaten dela bi paragrafo sartu behar direla honako hauek aipatzeko: a) ahal publikoak baliatzea eta interes orokorrak zaintzea dakarten lanpostuak funtzionarioentzat gorde behar direla; b) *Trabajo Penitenciario y Formación* zuzenbide publikoko estatu-erakundeko langileak (EAEko Administrazioari egitekoak eta zerbitzuak eskualdatzeko erabakiaren eranskinean agertzen dira) Gizarteratzearen Euskal Agentziara igaroko direla, ente berriak bereganatuko dituen funtzioak betetzen baitituzte langile horiek.

#### **4).- Egitekoak.**

Ente berriari esleitutako egitekoen artean ez dago bere eskumeneko arloekin lotutako dirulaguntzak ematea.

Hori dela-eta, EONALTBren 48.5 artikuluan ezartzen denaren arabera, zuzenbide pribatuko ente publikoek dirulaguntzak eman ditzakete, eta dirulaguntzak ematean publikotasunaren, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak bete behar dituzte. Bere izaera juridikoarekin bat datozen heinean, honako paragrafo hauetan zehaztutakoa aplikatu beharko da: 49. artikuluko 3., 10., 11. eta 12 paragrafoak; 50. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoak; 51. artikuluko 1. paragrafoa; eta 53. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak. Oinarri arautzaileak onartzea eta laguntzak ematea organo eskudunen egitekoak izango dira, erakundearen estatutuetan edo hura sortzeko arauetan ezartzen denaren arabera. Gainera, oinarri arautzaileak EHAAan argitaratu behar dira. Beraz, hortik ondorioztatu behar da EONALTBk ez diela onartzen dirulaguntzak emateko eskumenik zuzenbide pribatuko ente publikoei, ez 48.5 artikuluan, ez beste ezeinetan; aitzitik, ezartzen du estatutuetan edo sorrera-arauan eskumen hori onartuta dutenek xedapen jakin batzuk bete behar dituztela horretan aritzeko. Beraz, entea sortzeko legearen aurreproiektuan horretaz ezer jasotzen ez denez, uste dugu ezin izango duela dirulaguntzarik eman.

## **5).- Araubide juridikoa**

Lege-aurreproiektuaren xedapen batzuk sortu nahi den erakundearen araubide juridikoa ongi egituratzeko dira: bata generikoa da eta dio erakundeak zergen arloko, aurrekontuen arloko, kontrol ekonomikoaren arloko eta kontratazioaren arloko indarreko zuzenbide publikoa bete beharko duela; bestea zehatza da eta dio kontrol- eta kontabilitate-araubidea kontrol ekonomiko-finantzarioaren eta kudeaketakoaren modalitate iraunkorrean gauzatuko dela.

Kontrol hori EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen III. tituluaren II. kapituluan arautzen da, 17 - 20 artikuluetan, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartu baitzen lege horren testua. Kontrol horren xedea da: a) Egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bat datorrela huraosatzen duten erakunde, zerbitzu eta unitateen jokabide ekonomiko-finantzarioa arautzen duten xedapen eta jarraibideekin eta hura zuzentzen duten erregulartasun-, legezkotasun-, eraginkortasun-, -efizientzia eta ekonomia-printzipioekin; b) Begiztatzea kontrolatzen diren enteen kontabilitateak eta informazio ekonomiko-finantzarioak egiazki islatzen dutela haien finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoera, eta bat datozela aplikagarriak diren xedapen eta printzipioekin. Kontrol ekonomiko-finantzarioko eta kudeaketa-kontrolleko txostenek kontrolatzen diren enteen kudeaketa hobetzeko beharrezko diren gomendioak erantsiko dituzte.

Lege horren 18. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz, auditoretza-teknikak aplikatuko dira kontrol horretarako. Auditoretza horiek izan daitezke

kudeaketaren arlokoak, finantzaren arlokoak, aurrekontua eta legezketasuna betetzen den edo ez ikustekoak edota ikuskatutako erakunde, zerbitzu eta norbanakoen prozedurak eta barneko kontrola aztertzeakoak. Kontrolaren izaera iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 12. artikuluan dago araututa; horren arabera, kontrol hori garatzeko beharrezkoak izan daitezkeen jarduerak eta lanak etenik gabe egingo dira ekitaldietan zehar, eta kontrolatu nahi diren jardueren edo ekintzen garaikideak izan beharko dute, ahal dela, jarduera horiek. Horrez gain, artikulua horren arabera, kontrolatu nahi den jardueraren argibide eguneratuak eta zehaztuak jasoko ditu Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, argibide horiek ahalik eta ondoen ezagutzeko. Bulegoak berak finkatuko du jasotzeko era eta aldizkakotasuna.

Kontabilitateari dagokionez, Kontabilitateko Plan Orokorrari eta hori garatzen duten xedapenei jarraituko die, baita merkataritza-araudian jasotako kontabilitate-printzipioei eta arauiei ere, EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen 6.3 artikuluan jasotakoaren arabera. Kontabilitatearen kudeaketa bere organoen arabera egingo bada ere, entearen estatutu sozialek ezartzen dutenari jarraituz, entea Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontabilitate-kontrolaren mende egongo da, eragiketa guztiak kontabilitatean islatzen direla ziurtatu eta bermatze aldera [13. art., aipatutako EAEko ekonomia-kontrolaren eta kontabilitatearen Legearen 6.1 artikulua harira].

## **6).- Antolaketa**

Aurreko 3. puntuan adierazitakoari jarraituz, Administrazio Kontseiluaren osaera eta bertako kideak izendatzeko prozedura ezarri beharko lirатеke, baita enteari esleitutako funtzio edo eginkizunak Administrazio Kontseiluaren eta Zuzendaritzaren artean banatzeko modua ere.

## **7).- Langileak**

Aurreko 3. puntuan adierazten dena aintzat harturik, ente berriari atxikitako langileak zehaztu beharko lirатеke.

Atal honekin lotura duten gainerako alderdiei dagokienez, bulego hau espedienteak barne hartzen duen Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostenari lotzen zaio. Haren arabera, lege-aurreproiektuaren testuan ezarri behar da ahal publikoak baliatzea eta interes orokorrak zaintzea dakarten lanpostuak funtzionarioentzat gorde behar direla, eta *Trabajo Penitenciario y Formación* zuzenbide publikoko estatu-erakundeko langileak (EAEko Administrazioari egitekoak eta zerbitzuak eskualdatzeko erabakiaren eranskinean agertzen dira) Gizarteratzearen Euskal Agentziara igaroko direla, ente berriak bereganatuko dituen funtzioak betetzen baitituzte langile horiek.

## 8).- Baliabide ekonomikoak

Lege-aurreproiektuaren 6. apartatuaren d) letraren arabera, ente berriaren baliabide ekonomikoen artean honako hauek daude: "*Esleitu ahal zaion beste edozein baliabide*". Zehaztasunaren mesedetan, gomendatzen dugu lege esleitzen zaizkion gainerako baliabide guztiak aipatzea, bere xedek betetzeko benetan esleituta dauzkan baliabideak baino ezin baititu erabili: esleigarriak izan arren esleitu ez zaizkionak ez.

## 9).- Aurrekontuak

Ente publikoaren aurrekontuak Euskadiko aurrekontu orokorretan sartzen dira, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginak (EALTB), maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartuak, 2.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, baina lege horrek ezartzen dituen ezaugarriak eta salbuespenak betez; zehazki, 8.2 artikulua honela ezartzen du: zuzenbide pribatuko ente publikoen aurrekontuek ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren zuzkidurak, inbertsioen eta finantzaketaren zuzkidurak, bai eta gerorako konpromisoen egoera-orria ere jasoko dituzte.

Hasiera batean, aurrekontuen egitura aurrekontuen arloko eskumeneko sailak ezarriko du EALTBren 35.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, baina ente publikoari egokituko zaio horiek beren berezitasunen arabera garatzea. Dena dela, EALTBren III. tituluaren V. kapituluak ezarritakoaren arabera (51.-56. art.), aurrekontuen egiturari buruzkoa bera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan sartze aldera, ustiapen- eta kapital-aurrekontuak egin beharko lirateke, aipatutako kapituluaren adierazten den moduan, eta baita etorkizuneko konpromisoen egoera ere. Horrez gain, honako dokumentu hauek ere sartu beharko lirateke: aurrekontu-ekitaldiaren amaierarako aurreikusitako finantza-egoerak, aurreikusten diren galeren eta irabazien kontua, eta aurreikusitako finantzaketa-koadro bat. Horiek guztiak Kontabilitate Plan Orokorraren eta hori garatzen duten xedapenen arabera egin beharko dira.

Era berean, EALTBren V. tituluko VIII. kapituluak, aurrekontu orokorrak aldatzeko araubideari buruzkoak, besteak beste zuzenbide pribatuko ente publikoei zuzendutako araubide espezifiko bat ezartzen du (97.-99. art.). 97. artikulua arabera, ente publikoen ustiapen- edo kapital-aurrekontuetako aurrekontu-aldaketatzat joko dira 54.2 artikulua arabera mugadun diren kontzeptuen zenbatekoetan egindako aldaketa guztiak: finantza-inbertsioak, langile-gastuak, besteren baliabideak, transferentzien eta eman beharreko dirulaguntza arrunten eta kapitaleko dirulaguntzen batura eta ibilgetu material eta ukiezinean egindako inbertsioen batura.

97. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik, aurrekontu-aldaketak aurrekontu-gaietan eskumena daukan sailak baimendu behar ditu -aldaketak eragiten dion sailak proposatuta-, salbu eta egin beharreko aldaketak enterean helburuetan ere aldaketak ekartzen dituzenean, kasu horretan Jaurlaritzak onartu beharko baititu, aurrekontu gaietan eskumena duen sailak proposatu ondoren. Aipatutako sailaren alde aurreko baimena behar da, halaber, eragiten dioten enterean aurrekontu-aldaketak administrazio- edo sozietate-berrantolaketen ondoriozkoak direnean. Bestalde, Jaurlaritzari dagokio gerorako konpromisoen egoera-orria handitzea, konpromiso berriak onartuz edo baimendutako zenbatekoa handituz, erakunde guztientzat hasieran baimendutako konpromisoen zenbateko globalaren % 15era arte, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren eta, hala badagokio, erakundearen organo arduradunaren proposamenez. Hiru hilez behin, baimen horien berri emango zaio Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari.

Euskal Autonomia Erkidego Aurrekontu Orokorretan, entearentzako transferentziak ezarri ahal izango dira, bai transferentzia arruntak, bai kapital-transferentziak. Transferentzia horiek entea atxikita dagoen sailari dagokion aurrekontu-atalean agertuko dira (kasu honetan, espetxeen arloko legeria betearazteko eskumena daukan sailaren atalean) eta AUKERAK ZPEPrentzat zorpetze-eragiketen diru-sarrerak izango dira, EAELTBren 15. artikuluan ezartzen den bezala [hau da: sail horrek ematen dizkion transferentzia eta dirulaguntza arruntak -eta gainerako erakunde eta pertsona guztiek ematen dizkietenak- enterean jardueren berri ematen duten diru-sarreraren egoera-orrietan agertuko dira; aldiz, jasotzen dituen kapital-transferentziak eta kapital-dirulaguntzak kapital-eragiketarak finantzatzeko baliabideak izango dira eta ez dira agertuko beraren jardueren emaitzetan, salbu eta hartutako funtsak beste pertsona edo ente batzuei kapital-laguntza emateko edo kapitala eskuratzeko izan badira]”.

Horrez gain, EAELTBren 21. artikulua ezartzen du transferentzia arruntei dagozkien ordainketa-kredituek galerak finantzatzeko dirulaguntza izaera dutela erakunde hartzaileentzat, beraz, ekitaldia ixten denean erakundeak irabaziak izan baditu funts horiek jaso izanaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio.

#### **10).- Erakundearen ondarea eta erakundea azkentzeko eta likidatzeko prozedura.**

Aurreko 3. puntuan adierazten dena aintzat harturik, enteari buruzko erregulazioan, hari atxikitako ondarea arautu beharko litzateke, bai eta entea azkentzeko eta likidatzeko prozedura ere.

#### **11).- Beste ohar batzuk.**



Proiektuaren artikuluko bakarraren 2. apartatua eta azken xedapenetako lehenean ezartzen da enterearen antolaketa-egitura eta jardun-araubidea garatuko direla Jaurlaritzak haren estatutuak onartzeko ematen duen dekretuaren bidez. Hori bat dator aurreko 3. puntuan aipatu den Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektuaren 45.3 artikuluekin (proiektua Gobernu Kontseiluak onartu du dagoeneko). Gainera, artikuluko horretan zehazten da erakundearen estatutuen helburu bakarra izan behar dela eratze-legean ezartzen dena garatzea antolaketari eta jardunari dagokienez.

Lege-proiektu horren 45.4 artikuluan ezartzen denaren arabera, eratze-legeak aurreikusiz gero erakundeak gobernu-organoren bat izan behar duela eta organo horrek kide anitzekoa izan behar duela, estatutuen aurreproiektua informazio eta kontsultapean jarriko da organo horrek lehenengo batzarra egiten duenean, Gobernu Kontseiluak onartu baino lehenago. Hizpide dugun proiektuak kide anitzeko gobernu-organoa (administrazio kontseilua) aurreikusi dionez sortuko duen enteari, komeniko litzateke hau gehitzea Eusko Jaurlaritzak enterearen estatutuak onartzeko dituelako aurreikuspenari: Eusko Jaurlaritzak onartu baino lehenago, estatutuen aurreproiektua informazio eta kontsultapean jarriko dela kide anitzeko gobernu-organoren batzarra egiten duenean.

#### **D).- Eragina ekonomian eta aurrekontuetan**

Espedienteak osatzen duen dokumentazioaren azterketatik ondorioztatu dugu araudi-proiektu honek eragina izan dezakeela Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren ekonomian eta aurrekontuetan, bai gastuetan bai diru-sarreretan.

Lehenbizi, kontuan hartu behar da EAEko 2021erako aurrekontu orokorrak egiteko jarraibide ekonomikoetako aurrekontu-jarraibideetako bosgarrenak honako hau ezartzen duela berariaz: *"Ezin izango da EAEko sektore publikoko erakunde berririk sortu"*. Ente berria sortzea ekarriko duen arau-proiektua ez dator bat Gobernu Kontseiluaren aginduekin, baina, hala ere, inguruabarrak bereziak dira, EAEko Administrazioak eskumen berriak bereganatu baititu, eta, horregatik, zentzuzkoa izan liteke agindu hori ez betetzea. Beraz, bulego honek ez du egiten inolako alegaziorik horretaz.

Beste alde batetik, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikulua honako hau ezartzen du: *"Era berean, espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du"*.

Urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak, bere aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen ditu, eta hau dio 43. artikuluan:

1.- Kontrol ekonomiko-normatiboa ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 26. artikulua  
2. paragrafoaren harira badoa, artikuluko 1. apartatutik aplikatzekoak izan daitezkeen apartatuez gain, proposatutako antolaketaren arrazionaltasuna landu beharko du eta horrek zerbitzuen egungo kostuan, errendimenduan eta eraginkortasunean duen eraginari eta etorkizuneko aurreikuspenari buruz iritzia eman.

2.- Horretarako, aurreko artikuluko eskatuta aurkeztu behar den dokumentazioaz aparte, hau ere igorri behar da:

a) Entea edo organoa sortzeko edo, hala badagokio, aldarazteko eta berrantolatze behararen edo egokitasunaren justifikazioa, gauzatuko dituen edo sartuko den ekonomia eta aurrekontuetako programak betetze aldera.

b) **Erabiliko diren giza baliabideen aurreikuspena, ordainsari eta kostuak zehaztuta**, eta, halaber, atxikitako baliabide materialak zehaztuta, ondo bereiziz zein diren gastu arrunt eta zein kapital-gastu.

c) Bere funtzionamenduaren eta zerbitzuen etekin edo erabilgarritasunaren azterketa ekonomikoa, eta, hala badagokio, baita **lau urteko Plan Ekonomikoa ere**.

3.- Baldin eta xedapenaren helburua bada sozietate, elkarte edo bestelako erakunde bat sortzea edo haietan parte hartzea, erakunde horien izaera juridikoa edozein dela ere, justifikazio-memoria bat ere igorri behar da, erakunde berri horren jardueraren inguru ekonomikoari buruzko informazio orokorra azalduko duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Institutuzionalak erakunde horretan parte hartzea justifikatzeko arrazoi ekonomikoak eta enpresakoak, soziokulturalak edo politikako estrategiakoak zein diren azalduko duena. **Erakunde hori sortuta edo bertan parte hartuta lortu nahi diren helburuak definitu behar dira, epe ertainera begira kuantifikatuta, eta helburuak zenbateraino bete diren neurtzeko adierazleak jarri, bai objektiboak bai subjektiboak.** Honako informazio hauek ere emango dira: erakunde berriaren xede soziala, Eusko Jaurlaritzaren partaidetza-ehunekoa, beste parte-hartzaile batzuei buruzko zehaztasunak eta horien partaidetza-ehunekoa, inbertsio proiektuak, proiektuaren errentagarritasun ekonomiko eta sozialaren azterketa, eta, hala badagokio, kapital- eta ustiapen-aurrekontuak, aurreikusten diren finantza-egoerak, aurreikusita dagoen zordunketa eta proposamena erabat ezagutzeko bide emango duten beste elementu eta agiri batzuk.

Espedientean honako agiri hau dago: "Aukerak - Agencia Vasca de Reinserción Social/Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko legearen aurreproiektuaren memoria ekonomikoa". Orokorrean, agiri horrek aurrean aipatutako arauetan

horrelako agirietarako ezartzen diren agindu gehienak betetzen ditu; denak ez, ordea, geroago ikusiko dugun bezala.

## 1).- Gastuei dagokienez

Gastuez honako hau adierazten da memorian:

*"AUKERAK" agentzia sortzean, ustiapen-gastu eta -diru-sarrera batzuk daude aurreproiektuaren testuko artikuluko bakarraren 3. apartatuan jasotzen diren eginkizunak gauzatzeari lotuta; izan ere, honako hauek gauzatuko ditu gutxienez: EINK Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo (TPFE) estatuko enteari egindako enkarguen indarraldia amaitzean AUKERAKek jasotzen dituen ekoizpen-tailerrak, Justizia Sailburuordetzak 2021eko urriaren 1etik aurrera (eginkizun eta zerbitzuak eskualdatzeko eraginkortasun-data) hasitako enplegurako prestakuntza-eta orientazio-ekintzak, baldin eta agentzia berria martxan hasten denean funtzionamendu-fasean badaude, eta Agentziak abian jartzen dituen tailer eta ekintza berriak.*

Zehatzago, honako hauek:

### A) Ekoizpen-tailerrak:

- Ekonomatua eta kafetegia
- Sukaldea (janaria)
- Mantentzea
- Errazioen banaketa
- Lan osagarriak: Garbiketa, garbitegia, lorezaintza, liburutegia, eta abar.
- Okindegia
- Kanpoko enpresekin hitzartutako tailerrak
- Tailer berriak

### B) Prestakuntza-jarduerak

### C) Enplegurako orientazio-ekintzak

*AUKERAKek bi motatako jarduerak ditu: batetik, produktiboa, eta bestetik, prestakuntzari eta orientazioari lotutakoa. Bi modalitate horietan sortzen dira diru-*

sarrerak eta gastuak, tailer gutxi batzuetan izan ezik (liburutegia, lorezaintza, eta abar), orain arte horietan ez baita ezer fakturatu.

TPFEk EAEko espetxeetan 2020ko ekitaldian kudeatu dituen ekoizpen-tailerren ustiapen-kontuak aztertu dira eta datu hauek atera dira: 150.000 € inguruko emaitza positiboa, eta, guztira, 4.169.246,05 € (hornidurak eta eskulan produktiboa) ekoizpen-jarduerari datxezkion gastuak. 2021erako aurreikuspena mantentzen da.

Dena den, kontuan izan behar da ekoizpen-tailerrei buruzko ustiapen-kontuetan ez dela jasotzen TPFE enterearen egitura-gastuei dagokien egozpenik. Orduan, AUKERAK erakunde berriak sortuko dituen ustiapen-gastuak eta -diru-sarrerak kalkulatzeko, arestian aipatutakoez gainera, langileen gastuak eta AUKERAKen egiturari egozteko moduko gainerako ustiapen-gastuak ere sartu beharko lirateke, hala nola errentamenduak, instalazioen eta makinen mantentze-lanak, energiaren, uraren eta gasaren hornidurak, komunikazioak, osasunaren zaintza, istripu-asegurua, euskarri informatikoa (EJIE) eta garbiketa-produktuen, jantzien, material suntsikorraren eta bestelakoen erosketa.

Presoentzako prestakuntza- eta orientazio-ekintzak antolatzeak gastuak 258.306 € ingurukoak izango lirateke.

Hala ere, memorian ez da zehazten zenbat langile beharko diren (ez eta bakoitzaren ordainsariak eta kostuak ere), eta hori ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 43. artikulua arabera.

## **2).- Diru-sarrerei dagokienez**

Diru-sarrerez honako hau adierazten da memoria ekonomikoan:

“Finantzaketari dagokionez, aipatutako artikulua 6. apartatuak ustiapen-gastuak finantzatzeko iturri hauek ezartzen ditu:

- Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura esleitzen zaizkion kopuruak.

- Dirulaguntzak.

- Bere ondarean sartutako ondasun eta eskubideen ondoriozko diru-sarrerak eta bere jardueren ondoriozko diru-sarrerak (arruntak eta apartekoak).

- Eta atxikitzen zaion beste edozein baliabide.

*EINK eskatuta edo kanpoko enpresekin sinatutako ekoizpen-akordioen ondorioz TPFEk EAEko espetxeetan antolatutako tailerren ekoizpen-jardueraren ondoriozko diru-sarrerak 3.595.000 eurokoak izan ziren 2020an. 2021ean diru-sarrera horiei eustea aurreikusi da, doikuntza txiki batzuekin, baina ekitaldian izandako izakinen gehikuntza ere izango da urte horretan.*

*Era berean, urtero 455.780 euroko diru-sarrerak aurreikusten dira Lanbidek Aukerak agentziari prestakuntza-ekintzetarako eta enplegu-orientaziorako egindako enkargu moduan.*

*Hala ere, eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeak 2021eko urriaren 1etik aurrera izango baditu ere ondorioak, 2021eko aurrekontuei dagokienez, honako hau hartu behar da kontuan:*

*(...) 3- 2022tik aurrera, Aukerak agentziaren salmenta propioen diru-sarreraren zenbatekoa honako hauen bidez handituko da: a) Sailak egindako enkarguak betetzeko erositako gaien prezioak hornitutako kopuruaren murrizketaren arabera (Estatua versus EAE) handituko diren aurreikuspena, b) ekoizpen-tailerrek egindako lan guztien fakturazioa, eta c) ekoizpen-tailer berrien antolaketa.*

*Azkenik, orain arte EAEko espetxeetan ezarri diren ekoizpen-tailer gehienak autokontsumora bideratuta daude, baina 2022rako proiektatzen den merkatu-azterketa batek bezero berriak identifikatzen lagunduko du eta produktua gehiago dibertsifikatzea ahalbidetuko du; horrela, gainera, EAEko espetxeetako presoen kopuruak autokontsumoak baimendutakoa baino eskala handiagoan ekoizteko aukera emango du, eta, beraz, epe ertainean (2-3 urte) ekoizpen-jardueratik eratorritako diru-sarrerak handitzea aurreikusten da."*

*Beste alde batetik, memoria ekonomikoan ezartzen da ez dela beharrezkoa AUKERAK erakundeak zergen arloko ahala edukitzea. Horrez gainera, ez da ezer aipatzen zehapenak ezartzeko ahalaz eta zehapenak kudeatzeaz ere; beraz, uste dugu ez dela diru-sarrerarik etorriko bi iturri horietatik.*

### **3.- Ustiapen-aurrekontua eta kapital-aurrekontua**

*Memoria ekonomikoan badaude ustiapeneko gastuen eta diru-sarreraren eta inbertsioen eta kapital-baliabideen inguruko kalkuluak eta zenbatespenak, eta finantzaketa-iturriak zehazten dira, baina, hala ere, azkenean honako hau adierazten da:*

*"Proiektuaren fase honetan, zaila da ustiapen-taularen eta kapitalaren zenbatespen zehatza egitea, proiektatutako erakundeari esleitutako zuzkiduren eta baliabideen errendimendua adierazteko, hainbat arrazoiengatik. Lehenengoa, proiektu berria sortzeko arrazoa da, hau da, espetxe-arloko Estatuaren legeria*

*betearazteari buruzko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko akordioa. Beraz, ez da erakunde berria sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde instituzionalek diagnostikoa egin ondoren aldeztu aurretik gauzatzen zituzten zerbitzuak modu eraginkorragoan emateko diseinatutako proiektua sortzea; Administrazio honek orain arte inoiz erabili ez duen eskumen berri bat bere gain hartzea da kontua, eta eskumen horren eragin ekonomikoak, beraz, orain arte erabilitakoak baino askoz sakonagoa eta zehatzagoa den azterketa bat eskatzen du.*

*Horrez gain, ez dago TPFEren tailerretan erabilitako ibilgetu materialaren inbentariarik, ez dakigu tipologia, kopurua eta antzintasun- eta balorazio-ezaugarriak.*

*Hala ere, AUKERAK EAEko espetxeetan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko erakunde gisa egoteak berekin dakar, nahitaez, Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen dion eskumen hori baliatzea, eta, beraz, ez da haren sorreraren errentagarritasunaren arabera. Gainera, ezin da interes ekonomikoak lortzearen mende geratu, Espetxeen gaineko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorra garatzeko onartutako araudian xedatutakoaren arabera (190/1996 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, Espetxeetako Erregelamendua onartzen duena eta 782/2001 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, espetxeetako lantegietan lan-jarduerak burutzen dituzten zigortuen lan-harremanaren izaera berezia eta gizartearen mesederako lanen zigorak betetzen dituztenen Gizarte Segurantzaren babesa arautzen dituen). Hala eta guztiz ere, erakunde horren kudeaketak errentagarritasun egokia lortu behar du bete beharreko helburuetarako, eta errentagarritasun horrek, esan bezala, gaur egun egin gabe dagoen azterlan sakon bat beharko du.*

*Beraz, erakunde berri honen sorrerak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan berehala izango duen eragin ekonomikoaren gaineko hurbilketa bat edukitzea beharrezkotzat jotzen denez, Aukerak agentziaren 2021 eta 2022 ekitaldietarako jardueraren ustiapenari eta kapitalari buruzko laburpen-taula hau egin da, memoria honi erantsita txertatzen diren aurrekontu-aurreikuspenen banakapenaren arabera:*

## **2021**

### **USTIAPEN AURREKONTUA**

GASTUAK

III. LANGILEEN GASTUAK: 246.055,51

VI. USTIAPENAREN BESTE GASTU

BATZUK: 582.341,00

VII. EMAN BEHARREKO

DIRULAGUNTZAK: 20.000,00

**Ustiapenaren gastuak, guztira:**

**848.396,51**

### **KAPITAL-AURREKONTUA**

INBERTSIOAK

DIRU-SARRERAK

VI. JASO BEHARREKO

DIRULAGUNTZAK: 848.396,51

**Ustiapenaren diru-sarrerak, guztira:**

**848.396,51**

FINANTZAKETA

II. INB. UKIEZ., MAT. ETA  
BESTELAKOETAN: 129.500,00  
**Inbertsioak, guztira: 129.500,00**

II. KAPITAL-TRANSF.: 129.500,00  
**Kapitalaren diru-sarrerak, guztira:  
129.500,00**

**2022**

**USTIAPEN AURREKONTUA**

GASTUAK

III. LANGILEEN GASTUAK: 3.889.845,45

VI. USTIAPENAREN BESTE GASTU

BATZUK: 5.390.866,00

VII. EMAN BEHARREKO

DIRULAGUNTZAK: 100.000,00

**Ustiapenaren gastuak, guztira:**

**9.380.711,45**

**KAPITAL-AURREKONTUA**

INBERTSIOAK

INB. UKIEZ., MAT. ETA

BESTELAKOETAN: 2.135.113,00

**Inbertsioak, guztira: 2.135.113,00**

DIRU-SARRERAK

III. SALMENTEN DIRU-SARRERAK:

6.313.280,60

VI. JASO BEHARREKO

DIRULAGUNTZAK: 3.067.430,85

**Ustiapenaren diru-sarrerak, guztira:**

**9.380.711,45**

FINANTZAKETA

II. KAPITAL-TRANSF.: 2.135.113,00

**Kapitalaren diru-sarrerak, guztira:**

**2.135.113,00**

*Datu esanguratsuak:*

- AUKERAKek 2022an egin beharreko jarduera 6.313.280,60 eurotan zenbatetsi zen, eta ustiapen-gastuak 9.380.711,45 eurotan. Hots, jarduera horren % 32 diruz lagundu beharko da gastu arruntetarako dirulaguntzen bidez (batez ere, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarenak, baita, neurri batean, Europar Batasunarenak ere, Aukerak bitarteko erakunde bihurtzen bada).

- AUKERAKera atxiki beharreko langileen gastuak, presoen ordainsariak eta kotizazioak barne, ustiapen-gastu guztien % 40 izango lirateke.

- Aurkeztutako ustiapen-kontuek agerian uzten dute ustiapenaren emaitzak nabarmen hobetzen direla ekoizpen-instalazioak hobetzen diren heinean; izan ere, instalazio modernoek (Zaballa) emaitza oso positiboak ematen dituzte, instalazio zaharrenetan (Martutene) antolatutako tailerrek uzten duten tarte txikiaren aurrean. Datu horrek agerian uzten du etorkizunean espetxeetako ekoizpen-instalazioei dagokienez adostu daitezkeen inbertsioek emaitza positiboak ekar ditzaketela, proiektatutako agentzia berriaren egiturazko gastuei diru-sarrera propioekin aurre egiten laguntzeko.

Azkenik, adierazi behar da etorkizunean AUKERAKek garatuko dituen ekoizpen-ekintzen eta prestakuntza-ekintzen errentagarritasuna neurtu beharko dela, batez ere, etorkizun hurbilean xede horretarako zehaztuko diren prestakuntza- eta gizarteratze-helburuak lortzen dituzten pertsonei dagokienez."

Gainera, honako hauek ere baditu eranskin gisa: ustiapen-aurrekontuaren eta kapital-aurrekontuaren proiektua; behin-behineko balantzea; entearen galera-

irabazien kontua; 2021eko eskudiru-fluxuaren egoera-orria; entearen bi urteko plana kontabilitateko agiriei buruz. Nolanahi ere, aurreikuspena 4 urterako izan beharko litzateke, bertan adierazita zer helburu, epe ertainera kuantifikagarri, lortu nahi den erakundea sortzearekin edo bertan parte hartzearekin, eta helburuak lortu direnez egiaztatzeko aplikatuko diren adierazleak (objektiboak zein subjektiboak) ezarri beharko lirateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak 43. artikuluan ezartzen duen bezala.

Azkenik, kontuan eduki behar da **Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena**. Txostena entea sortzearen aldekoa da eta, besteak beste, honako gogoeta hauek egiten ditu aurreproiektuak EAEko Aurrekontu Orokorretan izan lezakeen eragin ekonomikoari buruz:

*"2021eko ekitaldirako aurreikuspen honetan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak ente berriari egingo dizkion bi ekarpen ageri dira; bata inbertsioetarako, 129.500 euro, eta bestea ustiapen-gastuetarako, 848.396 euro.*

*Ente berriarentzako ekarpenak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2021eko indarreko aurrekontuen kargura finantzatzeko dira. Gainera, beharrezkoa izanez gero, entea finantzatzeko behar diren aldaketak egingo dira aurrekontuetan.*

*Horretarako, behin espetxeen arloko eskumenak eskualdatzeko errege dekretua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakiaren dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoan, dekretu bat egingo da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontuari gehitzeko AUKERAK zuzenbide pribatuko ente publiko berriaren 2021eko ekitaldia amaitu arteko jarduketak finantzatzeko behar diren gastu-partidak zuzkitzeko, egingo zaion transferentziaren partida barne.*

*2021. urtean sortzen bada, AUKERAK ez da hasiko jardunean aurrekontu-ekitaldiarekin batera; horregatik, Jaurlaritzak onartu beharko ditu entearen 2021eko aurrekontuak.*

*2022ko ekitaldiko kopuruak proposamenak dira, eta EAEko 2022ko aurrekontu orokorrak prestatzeko eta gero Eusko Legebiltzarrean onartzeko lantzen diren aurrekontu-agertokiei egokitu beharko zaizkie."*

#### **4.- Beste administrazio publiko batzuetan, partikularrengan eta, oro har, ekonomian izango duen eragina**



Amaitzeko, esan behar dugu memoria ekonomikoak bete egiten duela 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan ezarritako eskakizuna; izan ere, artikuluko arabera, memoria ekonomikoak *egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du*. Legearen aurreproiektuak ez die eragiten beste erakunde-maila batzuei, hala nola foru aldundiei edo udalei. Halaber, Aukerak sortzeak ez du edukiko zuzeneko eraginik herritarrengan. Gainera, eragin positiboa edukiko du askatasunik gabe dauden pertsonentzat, erakundearen helburua gizarteratzeko eta laneratzeko behar dituzten trebakuntza eta lanbide-heziketa eskaintzea baita, bai eta ekonomian ere, pertsona horiek berriz ere deliturik ez egitea bultzatzen baitu eta delituen ondoriozko kostuak (sozialak eta ekonomikoak) murrizten baititu.

Gasteizen, 2021eko uztailaren 6an.

Sinadura elektronikoa: IGS eta JLZ